

ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN

OMENALDIRA ETORRIAI

Ongi etorri eusko semeak,
on etorri euskerara,
euskal eguna dogu gaur eta
seme zintzoen erara;
millak urteak daukaz euskerak
Ondarruagaz batera,
seme-alaba, leial- argiak
datoz ama goratzera.

Itxastar gizon, erritar seme
eta euskerazaleak,
danon artean, emen, ditugu
euzko gidari trebeak;
emon indarra, emon bultzada
adoretzeko semeak,
ama on batek merezi dauz-ta
seme guztien txaloak.

Txomin Agirre oroitu daigun
Onadarroako Iorea,
eta arekin bustartu daigun
Zubikaraitar semea;
izar barriak sortu daitezcan
ai, oi, euskera maitea,
zure bizia zabalduko daun
euskal mutil artista.

OMENDUARI

Mutil koskorra intzan garaian
zer erabillan barruan,
nor eukan, beti, zirikatuten
euskeraren inguran;
gazte gazterik, amets eder bat
gozotasunez buruan,
eta biotza, gogor, bultzaka
izkuntz amaren kolkuan.

Ezin neik itzi aitatu barik
itxas-ertz zoragarria...
Ondarrutarren amets guztien
bizitzarako bidia;
ainbat izerdi ta ainbat egun
igarotako urtzia,
noz nai arriskuz, noz nai arraiñez
ondutako bizitzia.

Eusko guraso aintzagarriak
emon euen adorea,
izkuntza aldez lan ederretan
urtuteko bizitzia;
egiz, eder dok izkuntza bati
eskeintzea bizitzea,
Euskalerrriak goratu daian
arbasoen sorrerea.

PAULIN

OKER BAT ZUZENTZEN

Gure ZER onen azkenengo zenbakian, (167, urrilla, 1992), aldizkariaren gaiñean, oker bat argitaratu dogu: Orreaga'ko eleizatxuan dan illobia III Santxo Erregearena dala, baiña izatez, Tolosa'ko Nabetan burrukatu zan VII Santxo'rena da. III Santxo bai izan zan euskaldun guztien eta beste lurralde batzuren errege, baiña au ez da illobi aretan ollobiratua izan zana.

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.200 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.
Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.